

### 3. Kanala:

Kanala gure balio proposamena xede bezeroari helarazteko erabiltzen da. Aukeratutako marketin estrategia funtsezkoa da puntu honetan (komunikazioa, banaketa eta salmenta).

Gure proposamenaren kanala kontsumitzailearekiko zuzena izango litzateke, zeren ez dago bitartekorik enpresaren eta kontsumitzailearen artean. Hau da, guk proposatutako kanala digitalki edo internet bidez izango litzateke, erlazio zuzen baten bidez bezeroarekiko. Enpresatik zuzenki bezeroarengana helduko litzateke kamioi bidez. Bitartekorik gabe funtzionatuko genuke, hau da, produktua eskatu, produzitu, prestatu eta azkenik erosleari eraman.

Denda ez denez fisikoki eta produktua ukitzeko eta pertsonan ikusteko aukerarik ez dagoenez, argazkiak eta bideoak daude produktuarenak, bideoan pausoz pauso azaltzen dugu funtzionamendua.

